

ENPRESA ESTRATEGIKOEN KAUDIMENARI SOSTENGUA EMATEKO FUNTSAREN KARGURAKO ALDI BATERAKO LAGUNTZA PUBLIKOA ESKATZEKO GIDA

ENPRESA ESTRATEGIKOEN KAUDIMENARI SOSTENGUA EMATEKO FUNTSAREN KARGURAKO ALDI BATERAKO LAGUNTZA PUBLIKOAREN ESKAERAREN EDUKIA

Aldi baterako laguntza publikoen eskaerek aplikagarria den araudian xedatutako betekizunak eta baldintzak bete beharko dituzte eta, zehazki, jarraian adierazitako dokumentazioa atxiki beharko dute:

1. Aldi baterako laguntza publikoaren eskaera inprimakia **I. Eranskin**eko ereduaren arabera.

2. Eskatzailea onuradun izaera lortzeko debeku kasuen barne ez egotearen erantzukizunpeko adierazpena, 2020ko uztailaren 21eko Ministro Kontseiluaren Akordioaren **II. Eranskin**eko 2. atalean xedatutakoaren arabera.

Erantzukizunpeko adierazpena **II. Eranskin**eko ereduari jarraituta aurkeztu beharko da.

3. Enpresaren negozio aurreikuspenak eta ondare eta finantza egoera jasotzen dituen Bideragarritasun Plana, bertan kuantifikatuta epe ertainera eta luzera bideragarritasuna bermatzeko beharko lituzkeen aldi baterako laguntzak eta bertan zehaztuta helburu horretarako eskatzen dituen kapital tresnak, kapital tresna hibridoak eta/edo finantza tresnak.

Bideragarritasun Planak barne izan beharko ditu bitarteko eta amaierako ebaluazioa egitea ahalbidetzen duten helburu neurgarriak, eta baita jasotako laguntzetarako hasierako estrategia ere. Hasierako estrategia horretan zehaztu beharko dira, alde batetik, Funtsari zuzendutako itzuleren programa, ordainsari eta amortizazio bitartez edo partaidetzen berrerosketa bitartez, eta aipatu helburuak betetzeko hartuko diren neurriak, bestetik.

Bideragarritasun Planak **III. Eranskin**ean adierazitako gutxieneko edukia izan beharko du.

4. Eskatzaileak Funtsaren enpresa onuradun izateko hautagarritasun baldintza jakinak betetzen dituela ziurtatzen duen erantzukizunpeko adierazpena, honakoa jasoko duena:

- a. Enpresa eskatzaileak ondarearen narriadura argia izan duela, uneko edo aurreikusitako galera metatuen ondorioz, beharrezkoa izango dela enpresaren kaudimena indartzea eta, Funtsaren kargurako aldi baterako finantza laguntza publikoa jaso ezean, enpresa jarduera etetera edo funtzionamenduan jarraitzeko zailtasun larriak izatera irits litekeela, hartara inpaktu negativo nabarmena izanda jarduera ekonomikoan edo enpleguaren arloan, nazio edo eskualde mailan.
- b. Bitarteko pribatuak baliatzen dituzten enpresa eskatzailearen kaudimena indartzeko bideak osatu egin behar direla aldi baterako finantza laguntza publikoarekin.
- c. Enpresak egindako Bideragarritasun Plana irizpide objektiboetan oinarritu dela enpresaren epe ertainerako eta luzerako bideragarritasuna ebaluatu ahal izateko, Funtsaren kargura eskatu den aldi baterako finantza laguntza publikorako aurreikusitako erabilera bertan deskribatzen dela, eta bertan azaldu direla ere ingurumen arriskuak, horiei aurre egiteko aurreikuspenak eta estrategia energetikoa, eta Funtsaren aldetiko laguntzen berreskuratzea Funtsa iraungi aurretik.
- d. Enpresa eskatzaileak edo enpresa eskatzailearen jarduera sektoreak garrantzi sistemikoa edo estrategikoa duela nazio edo eskualde mailako ekoizpen ehunean, besteak beste, duen inpaktu sozial eta ekonomiko garrantzitsuegatik; edo osasunaren, segurtasun publikoaren, azpiegituren edo komunikazioen arlorako duen garrantziagatik; edo merkatuen funtzionamendu zuzenari egiten dion ekarpenagatik; edo ekonomia osorako duen izaera bultzatzaileagatik; edo duen izaera berritzaileagatik; edo ematen dituen zerbitzuen funtsezko izaeragatik; edo trantsizio ekologikoaren edo digitalizazioaren arloetako epe ertaineko helburuak lortzeko duen eginkizunagatik; edo produktibitatearen edo giza kapitalaren areagotzeagatik.

Erantzukizunpeko adierazpena **IV. Eranskineko** ereduari jarraituta aurkeztu beharko da.

5. 2019ko abenduaren 31ko datan zerga obligazioak eta gizarte segurantzarekiko obligazioak egunean izatearen ziurtagiriak, indarrean dauden xedapenen arabera.

6. Azken hamar urteetan jaso dituen laguntza publiko guztien erantzukizunpeko adierazpena, laguntza bakoitzaren zenbatekoa, kontzeptua eta dirulaguntza edo laguntza publikoa eman zuen organoa adierazita, edozein modalitatetan.

7. IFZ, eskatzailearen eratze eskritura eta uneko sozietate osaera eta gainerako organo sozialen osaera agertzen dituzten eskriturak. Bigarren mailako balore merkatu ofizial batean kotizatzen duten edo negoziatorako onartuak dauden

sozietateen kasuan, partaidetza esanguratsuen xehetasunak eta organo sozialen uneko osaera agertzen duten eskrituren kopiak.

8. Funtsaren kargurako aldi baterako laguntza publikoa eskatzeko erabakia barne duten enpresa eskatzailearen administrazio organoen akordioen ziurtagiria eta eskaera sinatu duten pertsonen ordezkariak ahalmena egiaztatzen duten dokumentuak.

9. Indarrean dauden Sozietatearen Estatutuak. Kontseiluaren Erregelamendua eta, kasuaren arabera, bazkide/akziodunen itun edo akordioak edo itun edo akordio parasozialak.

10. Urteko Kontuak, Kudeaketa Txostena eta, kasuaren arabera, Finantzaz Besteko Informazioaren Egoera (sozietate taldeen kasuan, taldeko kontu kontsolidatuak eta eskatzailearen banakako kontuak), behar bezala prestatuak eta auditatuak, auditoretza eta egiaztatze txostenak barne, hurrenez hurren.

“Aurretiko informazio aldia irekitzeko eskaerak” eta “Enpresa estrategikoen kaudimenari sostengua emateko funtsaren kargurako aldi baterako laguntza publikoaren eskaerak” SEPIren egoitza elektronikoa aurkeztu beharko dira, atxikitako inprimaki ereduaren arabera.

Bidali beharreko dokumentuak asko badira, dokumentuak independenteak ez badira edo fitxategiek 10 MB-tik gorako tamaina dutenean, enpresek eskaera hauek aurkeztu ahalko dituzte “Fitxategien Biltegiaren” bitartez (fitxategiak hodeian biltegitzeko sistema).

Kasu hauetan, aldeztu aurretik, enpresa interesdunek SEPIri eskatu beharko diote, registro@sepi.es helbide elektronikoa bitartez, fitxategiak sistema honen bitartez bidaltzeko gonbidapena. Gonbidapenak, ematekotan, zazpi egun naturaleko iraupena izango du.

Dokumentuak Fitxategien Biltegiaren bitartez bidaltzen diren aldi berean, SEPIren aurrean aurkeztu beharko da, haren egoitza elektronikoa baliatuta, bidali diren fitxategien xehetasunak ageri dituen zerrenda bat.

Madril, 2020ko abuztuaren 7an

sozietateen kasuan, partaidetza esanguratsuen xehetasunak eta organo sozialen uneko osaera agertzen duten eskrituren kopiak.

- Funtsaren kargurako aldi baterako laguntza publikoa eskatzeko erabakia barne duten enpresa eskatzailearen administrazio organoen akordioen ziurtagiria eta eskaera sinatu duten pertsonen ordezkariak ahalmena egiaztatzen duten dokumentuak.
 - Indarrean dauden Sozietatearen Estatutuak. Kontseiluaren Erregelamendua eta, kasuaren arabera, bazkide/akziodunen itun edo akordioak edo itun edo akordio parasozialak.
 - Urteko Kontuak, Kudeaketa Txostena eta, kasuaren arabera, Finantzaz Besteko Informazioaren Egoera (sozietate taldeen kasuan, taldeko kontu kontsolidatuak eta eskatzailearen banakako kontuak), behar bezala prestatuak eta auditatuak, auditoretza eta egiaztatze txostenak barne, hurrenez hurren.
3. Dokumentu honen datan eskatzaileak ez duela inolako zerikusirik bere egonkortasun ekonomikoari edo eskatutako aldi baterako finantza laguntza publikoari eragin liezaiokeen eta eskaera honetan berariaz adierazi ez den prozedura judizial batekin, erreklamazio batekin edo administrazio espediente batekin.
4. Eskatzaileak onartzen duela Funtsak eska diezaiokeela aurkeztutako Bideragarritasun Planean edozein aldaketa, berregituraketa, hobekuntza edo eraldaketa egin dezan, aldi baterako laguntza publikorako berme eta/edo kaudimen gehiago eskuratzeko helburuarekin.

Aurreko guztiagatik, enpresa estrategikoen kaudimenari sostengua emateko funtsaren kargurako aldi baterako laguntza publikoa ESKATZEN du, eurokoa, jarraian adierazitako tresnen bitartez, Funtsaren araudi aplikagarrian xedatutakoaren arabera:

(e)n, 2021ko ren (e)(a)n

Sinadura

0. ERANSKINA
SEPI-RI AURRETIKO INFORMAZIO ALDIA IREKITZEA ESKATZEKO
INPRIMAKIAREN EREDUA



jauna/andrea, adinez nagusia, NAN

zenbakiaren titularra, erakundearen (aurrerantzean, "Eskatzailea")

izenean eta ordezkari gisa jarduten duena (egoitza soziala: ;

harremanetarako telefonoa: ; harremanetarako helbide elektronikoa:

);

; IFZ:), gisa,

dokumentuaren arabera [1].

[1] Adierazi ahalordea ematen duen legezko tresna, bai Notario aurrekoa zein estatutuen bidezko ordezkartzaren arabera, eta atxiki dagokion dokumentuaren kopia eskaerari.

ESKAERA HONEN BIDEZ SEPI-RI ESKATZEN ZAIO aurretiazko informazio [2] aldi bat ireki dezan, jarraian adierazitako zalantzak argitzeko helburuarekin, enpresa estrategikoen kaudimenari sostengua emateko funtsaren kargurako aldi baterako laguntza publikoari aplikagarriak zaizkion baldintzen eta/edo onuradunek bete beharreko betekizunen inguruan:

[2] Informazio hori guztia informazio erreserbatua izango da, 25/2020 Errege Lege Dekretuak, uztailaren 3koak, ekonomia eta enplegua berpiztean laguntzeko premiazko neurriei buruzkoak, 2.17 artikuluan xedatutakoaren arabera, eta ez du inolako eskubiderik sortuko eskatzailearen alde eta ez du inolaz ere lotuko Kontseilu Kudeatzailea dagokion prozeduraren amaierarako baldin eta prozedura hori hasten bada aurretiazko aldia amaitu ostean.

(e)n, 2021ko ren (e)(a)n

Sinadura

I. ERANSKINA
ENPRESA ESTRATEGIKOEN KAUDIMENARI SOSTENGUA EMATEKO
FUNTSAREN KARGURAKO ALDI BATERAKO LAGUNTZA PUBLIKOA
ESKATZEKO INPRIMAKIAREN EREDUA



titularra, **jauna/andrea, adinez nagusia,** **NAN zenbakiaren**
erakundearen (aurrerantzean, “Eskatzailea”) izenean eta
ordezkari gisa jarduten duena (egoitza soziala: _____ ;
harremanetarako telefonoa: _____ ; harremanetarako helbide elektronikoa:
_____ ; IFZ: _____), gisa, dokumentuaren
arabera[1].

[1] Adierazi ahalordea ematen duen legezko tresna, bai Notario aurrekoa zein estatutuen bidezko ordezkariaren arabera, eta atxiki dagokion dokumentuaren kopia eskaerari

HONEN BITARTEZ ADIERAZTEN DA:

1. **FCPJ enpresa estrategikoen kaudimenari sostengua emateko funtsaren (aurrerantzean, “Funtsa”)** araudi aplikagarria ezagutzen dela, eta eskaera honekin batera berariaz onartzen direla Funtsaren baldintzak, betekizunak eta funtzionamendua.
2. Eskatzaileak jarraian adierazitako dokumentazio atxikia aurkeztu duela, Funtsak proposatutako ereduaren arabera:
 - Eskatzailea onuradun izaera lortzeko debeku kasuen barne ez egotearen erantzukizunpeko adierazpena, 2020ko uztailaren 21eko Ministro Kontseiluaren Akordioaren II. Eranskineko 2. atalean xedatutakoaren arabera.
 - Bideragarritasun Plana.
 - Eskatzaileak Funtsaren enpresa onuradun izateko hautagarritasun baldintza jakinak betetzen dituela ziurtatzen duen erantzukizunpeko adierazpena.
 - 2019ko abenduaren 31ko datan zerga obligazioak eta gizarte segurantzarekiko obligazioak egunean izatearen ziurtagiriak, indarrean dauden xedapenen arabera.
 - Azken hamar urteetan jaso dituen laguntza publiko guztien erantzukizunpeko adierazpena, laguntza bakoitzaren zenbatekoa, kontzeptua eta dirulaguntza edo laguntza publikoa eman zuen organoa adierazita, edozein modalitatetan.
 - IFZ, eskatzailearen eratze eskritura eta uneko sozietate osaera eta gainerako organo sozialen osaera agertzen dituzten eskriturak. Bigarren mailako balore merkatu ofizial batean kotizatzen uten edo negoziatziorako onartuak dauden

II. ERANSKINA
ONURADUN IZAERA LORTZEKO DEBEKU KASUEN BARNE EZ EGOTEAREN
ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA, 2020KO UZTAILAREN 21EKO MINISTRO
KONTSEILUAREN AKORDIOAREN II. ERANSKINEKO 2. ATALEAN
XEDATUTAKOAREN ARABERA

jauna/andrea, adinez nagusia, NAN
zenbakiaren titularra, erakundearen (aurrerantzean, "Eskatzailea")
izenean eta ordezkari gisa jarduten duena (egoitza soziala:);
harremanetarako telefonoa: ; harremanetarako helbide elektronikoa:
; IFZ:), gisa,

Honen bitartez eta legezko ondorio egoki guztietarako, ADIERAZTEN du, enpresa estrategikoen kaudimenari sostengua emateko funtsaren onuradun izateko baldintza guztiak beteta,

- i) Egoitza soziala eta lan zentro nagusiak Espainian dituen finantzaz besteko enpresa bat osatzen duela.
- ii) Enpresa ez zegoela krisi egoeran 2019ko abenduaren 31ko datan, Tratatuaren 107. eta 108. artikulua aplikatuz barne merkatuarekin bateragarriak diren laguntzen kategoria jakin batzuk aitortzen dituen Europako Batzordearen ekainaren 17ko 651/2014 (EB) Erregelamenduaren 2 (18) artikuluan xedatutakoaren arabera.
- iii) 2020ko uztailaren 21eko Ministro Kontseiluaren Akordioaren II. Eranskinaren 2.c) atalean xedatutakoa betetzen duela.
- iv) Ez duela epai irmo bidezko kondenarik jaso dirulaguntza edo laguntza publikoak eskuratzea galarazten dionik jarraian adierazitako delituen ondorioz: prebarikazioa, eroskeria, ondasun publikoak bidegabe eralgitzea, eragimen trafikoa, iruzurrak eta legearen aurkako ordainarazpenak edo hirigintza delituak.
- v) Administrazioarekin gauzatutako beste edozein kontratu ez dela modu irmoan suntsiarazi eskatzailea erruduntzat jo den edozein arrazoiren ondorioz.
- vi) Dirulaguntza edo laguntza publikoak itzultzeko ordainketa obligazioak egunean dituela.

(e)n, 2021ko ren e)(a)n

Sinadura

III. ERANSKINA

BIDERAGARRITASUN PLANAREN GUTXIENEO EDUKIAREN EREDUA

1. **Egikaritze laburpena.**
2. **Erreferentzia laburra enpresaren historiari, sozietate egiturari, akziodunei, kudeaketa organoei, enpresaren organigramari, etab.**
3. **Sarrera: COVID-19aren inpaktuaren azalpena.**
 - a) Inpaktua merkatuan eta negozioan.
 - b) Inpaktua estrategian.
 - c) Inpaktua enpresan: COVID-19aren aurretiko egoera, uneko egoera eta negozio aurreikuspenak eta aurreikuspen ekonomiko-finantzarioak, egoera azaltzeko eta kanpoko finantza laguntzaren beharra justifikatzeko.
 - d) Susperraldi aukerak.
4. **Funtsari egindako proposamenaren identifikazioa.**
5. **Kanpo analisia:**
 - a) Merkatuarena:
 - i) Arestiko bilakaera eta uneko egoera.
 - ii) Mehatxuak/aukerak.
 - iii) Joerak eta aurreikusitako bilakaera.
 - b) Sektorearena/ bezeroena eta lehiakideena:
 - i) Arestiko bilakaera eta uneko egoera.
 - ii) Mehatxuak/aukerak.
 - iii) Joerak - aurreikusitako bilakaera.
 - c) Analisi konparatiboa (benchmark).
6. **Barne analisia:**
 - a) Antolakuntza egitura, egitura operatiboa eta ekoizpen egitura. Baliabide erabilgarriak.
 - b) Enpresaren inpaktu sozial eta ekonomikoa.
 - c) Enpresaren eta haren negozio unitateen diagnostikoa. Indarguneak/ahulguneak.
 - d) Azken urteetako enpresaren jardun eta datu nagusiak, barne hartuta jardueraren historikoak eta finantza egoeren datuak, arlo/sail/negozio unitateen arabera xehatuak.
 - e) Lehia posizionamendua.
7. **Krisi egoera gainditzeko bideragarritasun strategiaren definizioa.**
 - a) COVID-19aren aurretiko posizionamendua eta estrategia.
 - b) COVID-19aren ondorengo posizionamendua eta estrategia. Eszenario estrategiko potentzialen barruan, garapen eredu jasangarri baten prestaketa, uneko testuinguruan eta aurreikus daitekeen testuinguruan. Negozio unitate bakoitzaren strategiaren identifikazioa (uneko egoera vs. lortu nahi den egoera):
 - i) Bideragarritasuna lortzeko strategiaren definizioa, barne hartuta trantsizio ekologikorako estrategia (batez ere ingurumenaren eta energiaren ikuspegitik), berrikuntza eta garapen estrategia, giza kapitalaren estrategia eta lan harremanen estrategia (genero berdintasuna barne).
 - ii) Hori egikaritzeko ildo eta ardatz estrategikoak.

IV. ERANSKINA
ENPRESA ONURADUNEN HAUTAGARRITASUN BALDINTZA JAKINEN
ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAREN EREDUA

jauna/andrea, adinez nagusia, NAN

zenbakiaren titularra, erakundearen (aurrerantzean, "Eskatzailea")

izenean eta ordezkari gisa jarduten duena (egoitza soziala: ;

harremanetarako telefonoa: ; harremanetarako helbide elektronikoa:

; IFZ:), gisa,

Honen bitartez eta legezko ondorio egoki guztietarako, ADIERAZTEN du:

- i) Enpresa eskatzaileak ondarearen narriadura argia izan duela, uneko edo aurreikusitako galera metatuen ondorioz, beharrezkoa izango dela enpresaren kaudimena indartzea eta, Funtsaren kargurako aldi baterako finantza laguntza publikoa jaso ezean, enpresa jarduera etetera edo funtzionamenduan jarraitzeko zailtasun larriak izatera irits litekeela, hartara inpaktu negatibo nabarmena izanda jarduera ekonomikoan edo enpleguaren arloan, nazio edo eskualde mailan.
- ii) Bitarteko pribatuak baliatzen dituzten enpresa eskatzailearen kaudimena indartzeko bideak osatu egin behar direla aldi baterako laguntza publikoarekin.
- iii) Enpresak egindako Bideragarritasun Plana irizpide objektiboetan oinarritu dela enpresaren epe ertainerako eta luzerako bideragarritasuna ebaluatu ahal izateko, Funtsaren kargura eskatu den aldi baterako laguntza publikorako aurreikusitako erabilera bertan deskribatzen dela, eta bertan azaldu direla ere ingurumen arriskuak, horiei aurre egiteko aurreikuspenak eta estrategia energetikoa, eta Funtsaren aldetiko laguntzen berreskuratzea Funtsa iraungi aurretik.
- iv) Enpresa eskatzaileak edo enpresa eskatzailearen jarduera sektoreak garrantzi sistemikoa edo estrategikoa duela nazio edo eskualde mailako ekoizpen ehunean, besteak beste, duen inpaktu sozial eta ekonomiko garrantzitsuagatik; edo osasunaren, segurtasun publikoaren, azpiegituren edo komunikazioen arlorako duen garrantziagatik; edo merkatuen funtzionamendu zuzenari egiten dion ekarpenagatik; edo ekonomia osorako duen izaera bultzatzaileagatik; edo duen izaera berritzaileagatik; edo ematen dituen zerbitzuen funtsezko izaeragatik; edo trantsizio ekologikoaren edo digitalizazioaren arloetako epe ertaineko helburuak lortzeko duen eginkizunagatik; edo produktibitatearen edo giza kapitalaren areagotzeagatik.

(e)n, 2021ko ren (e)(a)n

Signatura

iii) Faktore kritikoak/arrakastaren gakoak.

iv) Adierazle esanguratsuak.

8. Ekintza plana/ibilbide orria.

- a) Bideragarritasuna lortzeko garatu beharreko proiektu estrategikoen definizioa.
- b) Egin beharreko ekintzak eta jarduketak gakoak.
- c) Epe laburrerako eta ertainerako helburuak.
- d) Jarduketan kronograma.

9. Bideragarritasuna lortzeko plan espezifikoa.

- a) Trantsizio ekologikorako plana.
- b) Plan teknologikoa eta sistema plana.
- c) Inbertsio plana.
- d) Merkataritza eta marketin plana.
- e) Giza baliabideen alorreko planteamendua.

10. Planaren negozio aurreikuspenak eta aurreikuspen ekonomiko-finantzarioak.

- a) Kontuan hartutako hipotesiak.
- b) Kontratazioa, zorroa, marjinak, ahalik eta modu xehatuenean.
- c) Finantza egoera oso xehatuak, enpresaren bideragarritasuna islatzeko nahikoa zabala den aldi batean zehar.
- d) Ratio operatibo eta finantza ratioak, eta alderaketa merkatuarekin.
- e) Arreta berezia diruzaintza fluxu eta aurreikuspenen egoerari, azken hauek hilez hile eta gutxienez ere 2 urterako.
- f) Adierazle gakoak eta lotutako arriskuak.

11. Finantza Plana.

- a) Ondarearen eta zorraren uneko egoera eta egitura. Abal eta bermeak, kontrabermeak, kauzio aseguruak.
- b) Finantza Planaren proposamena, Funtsaren laguntzaren beharra espezifikoki adierazita, azken aukera gisa, eta baita planaren aplikazio proposamen zehatza ere.
- c) Estatuaren laguntza itzultzeko proposamena, Estatuaren inbertsioa amortizatzeko eta ordainak egiteko egutegi batekin, eta Estatuaren laguntza itzultzeko plana betetzen dela bermatzeko hartuko liratekeen neurriak.

12. Kontingentzia plana (Bideragarritasun Planarekiko alternatibak, kasuaren arabera).

Oharra: Negozio aurreikuspenek eta aurreikuspen ekonomiko-finantzarioek, eta finantza planak, barne hartu behar dituzte 2018 eta 2019 ekitaldiak, 2020 ekitaldia eta enpresaren bideragarritasuna lortzeko eta aldi baterako finantza laguntza publikoa itzultzeko beharrezkoa den horren ondorengo aldia, gehi beste ekitaldi bat.

Oharra: Egokia denean, enpresa eskatzaileak Bideragarritasun Plana prestatzeko izan dituen kanpo aholkulariak identifikatu beharko dira.

(e)n, 2021ko

ren (e)(a)n

Sinadura

sozietateen kasuan, partaidetza esanguratsuen xehetasunak eta organo sozialen uneko osaera agertzen duten eskrituren kopiak.

- Funtsaren kargurako aldi baterako laguntza publikoa eskatzeko erabakia barne duten enpresa eskatzailearen administrazio organoen akordioen ziurtagiria eta eskaera sinatu duten pertsonen ordezkari-tza ahalmena egiaztatzen duten dokumentuak.
 - Indarrean dauden Sozietatearen Estatutuak. Kontseiluaren Erregelamendua eta, kasuaren arabera, bazkide/akziodunen itun edo akordioak edo itun edo akordio parasozialak.
 - Urteko Kontuak, Kudeaketa Txostena eta, kasuaren arabera, Finantzaz Besteko Informazioaren Egoera (sozietate taldeen kasuan, taldeko kontu kontsolidatuak eta eskatzailearen banakako kontuak), behar bezala prestatuak eta auditatuak, auditoretza eta egiaztatze txostenak barne, hurrenez hurren.
3. Dokumentu honen datan eskatzaileak ez duela inolako zerikusirik bere egonkortasun ekonomikoari edo eskatutako aldi baterako finantza laguntza publikoari eragin liezaiokeen eta eskaera honetan berariaz adierazi ez den prozedura judizial batekin, erreklamazio batekin edo administrazio espediente batekin.
4. Eskatzaileak onartzen duela Funtsak eska diezaiokeela aurkeztutako Bideragarritasun Planean edozein aldaketa, berregituraketa, hobekuntza edo eraldaketa egin dezan, aldi baterako laguntza publikorako berme eta/edo kaudimen gehiago eskuratzeko helburuarekin.

Aurreko guztiagatik, enpresa estrategikoen kaudimenari sostengua emateko funtsaren kargurako aldi baterako laguntza publikoa ESKATZEN du, eurokoa, jarraian adierazitako tresnen bitartez, Funtsaren araudi aplikagarrian xedatutakoaren arabera:

(e)n, 2021ko ren (e)(a)n

Sinadura